

2018KO JARDUEREN TXOSTENA

2018KO APIRILA

AURKIBIDEA

A. JARDUEREN TXOSTENA

ANTOLAKETA EGITURA

1. KANPO HARREMANAK

- 1.1 Gestioak administrazio publikoarekin
- 1.2 Enpresen Alten eta Bajen Kudeaketari buruzko Plana elkartean

2. KOMUNIKAZIOA

- 2.1 Zirkularrak
- 2.2 Gestioak hedabideekin
- 2.3 Newsletterra
- 2.4 Interneteko ataria
- 2.5 Sare sozialak

3. PRESTAKUNTZA

4. ZERBITZUAK

- 4.1 Akordioak hirugarrenekin
- 4.2 Aholkularitza
- 4.3 Laguntzak eta diru-laguntzak
- 4.4 Bannerrak www.getxoenpresa.com webgunean
- 4.5 Bazkidetutako enpresei begira zerbitzu berriak garatzeko big data
- 4.6 Lan poltsa
- 4.7 GetxoEskaintzak eta Bezeroei zuzendutako eskaintzak edo promozioak
- 4.8 Lizitazioak


5. JARDUERAK

- 7.1 2019ko agenda-dietarioa
- 5.2 10 + Merkataritza Bona
- 5.3 Getxoko Erakusleihoen 28. Lehiaketa
- 5.4 Enpresa Bazkideen Urteroko XIII. Topaketa
- 5.5 II. Getxo Black Friday
- 5.6 VII eta VIII GetxoBono
- 5.7 Getxo modan dago
- 7.8 33. Getxo Moda: Getxoko Moda eta Estilismo Astea
- 5.9 Getxo Rock & Fun
- 5.10 Gabonetako dinamizazio proiektua
- 5.11 II. Hazkatu eta Irabazi Getxo
- 5.12 Bazkideen aitorpena
- 5.13 "Dastatu Getxo" pintxo ibilbidearen VII. edizioa



A. JARDUEREN TXOSTENA

ANTOLAKETA EGITURA



Apirilaren 17an, elkartearen egoitzan, 2017KO OHIKO BILTZAR NAGUSIA egin genuen; gai zerrenda honako hau izan zen:

- 2016ko Ohiko Batzar Orokorraren akta irakurtzea eta, egokia bada, onestea.
- 2017. urtearen egindako jarduerak eta 2018. urterako jardura plana.
- 2017ari dagokion informazio ekonomikoa eta 2018 ekitaldirako aurrekontua.
- 2017 ekitaldian bazkide tutako enpresa berrien zerrenda.
- Zuzendaritza Batzordeko karguak berritzea.
- Galde-eskeak.

Horrez gain, honako hauek editatu ziren:

- 2017ko urteko memoria, formatu digitalean, euskaraz eta gaztelaniaz.
- 2017 ekitaldiari dagokion informazio ekonomikoa duen dokumentu bat.
- Dokumentu hau, 2018 ekitaldirako jardueren plana eta aurrekontua biltzen dituen.

1. KANPO HARREMANAK

1.1 KUDEAKETAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN

Toki, foru eta lurralde mailako administrazioarekin etengabeko harremana izaten jarraituko dugu 2018. urtean; hala, udalerriko enpresentzat onuragarriak diren jarduerak egingo ditugu, bereziki elkarteko enpresentzat interesgarriak direnak.

Hauek dira aurten jorratu diren gai nagusiak:

- Ostalaritzako ordutegiak luzatzea.
- Tokiko enpresetan kontsumoa bultzatzeko ekintzak.
- Aparkalekua.
- Dinamizazio ekonomikorako udal laguntzen oinarriak.
- Erreformat egiteko, kalean ekitaldiak antolatzekeo terrazak jartzeko, eta abarretako jakinarazpenak eta baimenak.
- Zabor-erakundeak kokapena.
- Iruzurrak, maulak eta lapurretak establezimenduetan.
- Saldoen merkatuak udalerrian.
- Zabalantzerako guneak

1.2 ENPRESEN ALTEN ETA BAJEN KUDEAKETARI BURUZKO PLANA ELKARTEAN

Kanpo harremanen funtzioa betetzen duen profesional bat dugu, udalerriko enpresei jakinarazten diena zein abantaila eta zein erabilera dituen kolektiboaren parte izateak; horrez gain, informazioa ematen die egiten ditugun jardueren eta ematen ditugun zerbitzuen inguruan, enpresa horiek elkartearen sar daitezzen, Getxo Enpresak aukera izateko Bizkaiko, Euskadiko eta Estatuko tokiko enpresa elkarte garrantzitsuenetako bat izaten jarraitzeko.

2018an 16 enpresa sartu dira, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu alorretakoak. Horrez gain, banaka kudeatzen ditugu elkarteko bazkide diren enpresen baja jakinarazpenak, jakiteko titularrek zein arazoarengatik erabaki duten elkartearen parte izateari uztea. Ahal den neurrian saiateren gara horiek ekiditen eta elkarteak egiten duen lana hobetzen.

2. KOMUNIKAZIOA

2.1 ZIRKULARRAK

Urteko lehen hiruhilekoan hainbat gairi buruzko 44 komunikatu zabaldutako dizkiegu elkarteko enpresei: enpresak sustatzeko jarduerak, laguntzak eta diru-laguntzak, prestakuntza programak, araudia, udaleko eta beste administrazio edo entitate batzuetako lizitazioak, enpresa kudeaketa eta abar.

Kolektiboan sartutako enpresen % 91k zirkularrak posta elektronikoz jasotzen ditu, eta gainerako % 9k posta bidez.

2.2 GESTIOAK HEDABIDEekin

Kolektiboan sartutako komunikazio agentzia bati esker, kanpo komunikazioa optimiza dezakegu prentsaurrekoekin, hedabideentzako ohar eta komunikatuekin eta publizitatea kudeatuz, besteak beste, hedabideek nabarmen estal ditzaten gure jarduerak, ematen ditugun zerbitzuak eta horietan parte hartzen duten enpresa bazkideak.

2.3 NEWSLETTERRA

Hilero jasotzen dute elkartearen newsletterra kolektiboan sartutako enpresek eta www.getxoimpresa.com webgunearen bidez buletin informatibora harpidetu direnek, haiek hautatutako hizkuntzan.

Buletin bakoitzak aurrera eramaten ditugun jardueren xehetasunak jasotzen ditu, bai eta elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak ere; gainera, proiektu bakoitzean parte hartzen duten enpresak azaltzen dira, enpresen intereseko informazioa, legeria aldeko berrikuntzak, prestakuntza plana eta abar. Newsletterren atal bakoitza lotuta dago www.getxoimpresa.com webgunean dagokion atalarekin, buletin digitalaren hileko edizio bakoitzean jorratutako gaiari buruzko informazio zehatzagoa lortzeko.

2.4 INTERNETEKO ATARIA

2017an www.getxoimpresa.com webguneak 64.000 bisita inguru izan ditu. Elkartearen web atariak honako aukera hauek ematen ditu:

- Elkarteak sustatzen dituen jardueretan eta eskaintzetan izena ematea eta horiek ordaintzea ordainketa sistema segurua erabiliz.
- Epaimahaikide gisa parte hartzea zenbait jardueratan.
- Kokapenerako eta harremanetarako datuen berri ematea: bazkide bakoitzaren logotipoa eta gehienez establezimenduaren edo bulegoaren 6 irudi, webguneetarako estekak edota profila sare sozialetan. Orobat, bazkideetako enpresa bakoitza udalerriko mapan kokaturik egongo da eta bezeroentzat geokokaturik, baldin eta webeko atarira sarbiderik badago sakelako telefonotik.
- Bazkideen atalean, hainbat dokumentazio aurki daiteke, hala nola zirkularrak, intereseko informazioa, arautegia, eta abar. Era berean, iragarkien taula ere badago, informazioa trukatzeko eta bazkideetako beste enpresa batzuen xehetasunen berri izateko.

Ekitaldi honetan jarraitu egingo dugu bitarteko hori erabiltzen egiten ditugun jardueren eta ematen ditugun zerbitzuen berri emateko, eta bertan parte hartzen duten enpresen eta elkartearen parte diren enpresa guztien inguruko informazioa emateko.

2.5 SARE SOZIALAK

Facebooken bidez (getxoimpresa) eta Twitterren bidez (@Getxo_Enpresa) elkarteak egiten dituen jardueren eta ematen dituen zerbitzuen berri ematen dugu, baita horietan parte hartzen duten establezimenduen berri ere. Horrez gain, sare sozial horietan profilak dituzten bazkideetako enprekin harremanetan aritzen gara.

3. PRESTAKUNTZA

Jarraian zehaztuta dago urteko lehen sei hilekorako prestakuntza plana:

1. Vende +: Técnicas de Cross Selling. (6h.)
2. Jubilazioa eta autonomoak. 2019ko erreformak. Zertan eragiten duten eta zer egin. (4 ordu)
3. Bankua, nola irabazten du dirua nirekin, enpresa naizen aldetik. Banku entitateekin negoziatzeko teknikak. (2 ordu)
4. Ahozkoa ez den komunikazioa. Zer adierazten du zure bezeroak? (6 ordu)
5. Zure saltokia erakargarri bihurtu ezazu. (6 ordu)
6. Erakusleihoak atontzea eta *visual merchandising*. (6 ordu)
7. Whatsapp enpresentzat (6 ordu)
8. Komunikatu: Sare sozialak eta *blogginga*. (6 ordu)
9. LinkedIn: Saltzeko tresna. (6 ordu)
10. Sare sozialetan edukiak sortu eta kudeatu. (6 ordu)
11. Elikagaien manipulazaila (arrisku txikikoa) (2 ordu).

12. Elikagaien manipulazaila (arriku handikoa) (4 ordu).

Urteko lehen hilabeteetan bazkideetako hogeita hamar enpresa inguruk hartu dute parte egindako prestakuntza saioetan. Kontuan izanda zein balorazio eta proposamen bidali dizkiguten lehen seihilekoan egindako prestakuntza ekintzetan parte hartu duten enpresek, bigarren seihilekorako beste prestakuntza plan bat zehaztuko dugu.

4. ZERBITZUAK

4.1 HITZARMENAK HIRUGARRENEKIN

Zerbitzu horren bitartez, elkartean integratutako enpresek baldintza bereziak dituzte beren jarduerarako behar dituzten produktuak/zerbitzuak lortzeko. Honako arlo hauetako hitzarmenak daude indarrean, honako enpresa hauekin:

- **Internet bidezko komunikazioa:** ABBIOCCO.
- **Kontabilitate, lan, zerga eta merkataritza arloa:** GESTORIA RINCON, MARTIN LAUCIRICA GRUPO ASESOR eta PROYECTA ASESORIA INTEGRAL.
- **Obren zuzendaritza eta lizentzien lorpena:** ARKIBATZ.
- **Segurtasun sistemen instalazioa eta mantenua (alarmak eta bideozaintza):** ABRA SEGURIDAD.
- **Legezkoa eta juridikoa:** GESTORIA RINCON eta PROYECTA ASESORIA INTEGRAL.
- **Laneko arriskuaren prebentzioa eta osasunaren zaintza:** PG PREVENCIÓN.
- **Finantza produktuak eta zerbitzuak:** KUTXABANK
- **Publizitatea eta promozioa:** VINILO FM. Hitzarmen horren bidez elkartean gauzatzen dugun jardueraren berri ere ematen dugu, bai eta bertan parte hartzen duten enpresen berri ere.
- **Autoen konponketa:** AUTOMOCION IBARRABARRI.

Hitzarmen guztien edukia eskuragarri dago es www.getxoenpresa.com/eu/zerbitzuak/ atarian.

4.2 AHOLKULARITZA

2018an bazkideen hogeita hamar kontsulta inguru jaso eta kudeatu ditugu, enpresen kudeaketaren hainbat alorri dagozkienak: lan alorrekoak, lege alorrekoak, finantza alorrekoak eta abar.

4.3 LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Bazkideetako enpresei orain arte argitaratutako honako alorretako laguntzen eta diru-laguntzen berri eman diegu: euskarazko errotuluak dituzten toloak jartzeko, kontratatzeke, teknologia berriak jartzeko eta enpresaren kudeaketa hobetzeko, eta berrikuntza, internazionalizazioa eta inbertsioa sustatzeko. Horietako batzuk ere izapidetu ditugu.

Informatzen eta aholkatzen jarraituko dugu eta, hala badagokio, erakundeek kudeatutako laguntzak eta diru-laguntzak izapidetzen enpresa bazkideentzat; halaber, jarraipena egingo dugu espedienteak amaitu arte.

4.4 BANNERRAK WWW.GETXOENPRESA.COM WEBGUNEAN

Kontuan izanda urteko lehen hiruhilekoan www.getxoenpresa.com webguneko 8.200 orrialde bisitatu direla, enpresa bazkideek beren marka, produktuak eta/edo zerbitzuak, ekitaldi bat eta abar sustatu ditzakete kostu murriztu baten truke 'banner' motako publizitate gune bat kontratatuz, bai elkartearen atariko hasierako orrialdean, bai barruko orrialdeetan.

4.5 BAZKIDETUTAKO ENPRESEI BEGIRA ZERBITZU BERRIAK GARATZEKO BIG DATA

2017. urtean, proiektuan inplikatzera erabaki zuten taldeko lau enpresa traktorek eta sektore desberdineko beste sei enpresek parte hartu zuten Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin egin genuen azterlan batean, teknologia berriek kontsumitzaileen datuak eskuratu, kudeatu eta optimizatzeko eskaintzen dituzten aukerak optimizatzeko helburuarekin.

Hasiera batean, Getxo udalerraren testuinguruan egin zen proiektua eta ikusi zen teknologia berriak erabili ohi dituzten herritarren profila EAEko batezbestekoa baino askoz altuagoa zela; halaber, tokiko enpresek erabiltzen dituzten datuen eta ez dauzkaten datuen diagnostikoa egin zen, balia garriak izan daitezkeenak aztertzeko.

Gauzak horrela, elkarteak enpresa kideei eskaini ahal dizkien zerbitzu berriak zehaztu ziren, honako hauek:

- **Sustapena eta komunikazioa bultzatzeko:** sarean dauden enpresak identifikatzea, sustapen-kanpainak egitea, Interneten publizitatea sartzera, etab.
- **Oraingo bezeroa eta balizkoa hobeto ezagutzeko:** bezeroen eta zenbait azpiegituren (zinemak, antzerkiak, eskolak, nagusien etxeak, etab.) datuetara sarbidea izatea erabaki estrategikoak hartzeko, bereziki produktu edo zerbitzuen eskaintzari eta bezero propioen zein balizkoen datuak monitorizatzea ahalbidetuko duten kanpainei buruzko erabakiak.
- **Kudeaketa estrategikoa laguntzeko:** kostuen kontrolari lotutako erabakiak hartzea, salmenten hazkunde-tasa neurtzea eta lehiakortasuna aztertzea, hori guztia datu objektiboak oinarri hartuta.
- **Zerbitzu osagarriak:** aipatutako zerbitzuetarako sarbidea, balorazioa eta ulermena errazteko.

Adierazitako zerbitzuak eskaintzeko, besteak beste, konponbide teknologiko bat sortu behar da gailu mugikorren bitartez, kontsumitzailearen ezaugarriei buruzko informazioa eskuratzeko eta oraingo bezeroei zein balizkoei lotutako enpresen harremana kudeatzeko; horrela, aurreikusitako finantzaketa lortuko dugu. Konponbide informatiko hori 2018. urtean zehar egingo dugu, interesa duten enpresek euren bezeroen eta kontsumoaren joera berrien eskariari ematen dieten erantzuna zein estrategia komertziala egokitu ahal izateko.

4.6 LAN POLTSA

2018an elkarteko enpresek egindako 3 langile eskaera jaso ditugu, honako postu hauetarako langileak hartu behar baitzituzten: finantza aholkularia, ileapaindegiko langilea eta praktiketako saltzailea.

Zerbitzu horren barruan hainbat alderdi jorratzen dira: bazkideen premietara egokien moldatzen diren curriculumen aurrehautaketa, hautagaiak aukeratzeko prozesuan laguntzea, lan arloko aholkularitza (kontratu mota egokiena, kontratazioa finantzatzeko laguntzen eta diru-laguntzen eskuragarritasuna, Gizarte Segurantzaren kotizazioak, eta abar), hautagaiak aukeratzeko prozesua aurrera eraman behar duten enpresa bazkideei aretoak lagatzea...

4.7 “GETXOESKAINTZAK” ETA BEZEROEI ZUZENDUTAKO ESKAINTZAK EDO PROMOZIOAK

www.getxoenpresa.com webgunearen bidez, enpresa bazkideek eskaintzak eta/promozioak egin diezazkiekete elkarteko enpresei ‘GetxoEskaintzak’ ekimenaren bidez, edo, bestela, amaierako bezeroei zuzendu diezazkiekete (oraingo bezeroak edo potentzialak), 'bezeroei zuzendutako eskaintzak' atalaren bitartez.

Eskaintzaren edota promozioaren hartzailearen arabera, hori elkartearen webguneko bi ataletako batean jarriko da:

- GetxoEskaintzak: bazkideen atalean kokatuta dago eta www.getxoenpresa.com/eu/bazkideen-arloa/getxofertas/ helbidean eskuragarri; horretara, bakar-bakarrik sartu ahal izango dira kolektiboko kideak diren enpresak, erabiltzaile eta pasahitzarekin.
- Bezeroei zuzendutako eskaintzak: www.getxoenpresa.com/eu/zerbitzuak/gure-bazkideen-eskaintzak/ webguneko zerbitzuen atalean (jendaurreko eremu horretara erabiltzaile guztiak sar daitezke).

Elkartea osatzen duzen enpresetako titularrek eta langileek edo azken kontsumitzaileek “GetxoEskaintzak” izeneko eskaintzez, promozioez edota eskaintzez gozatu ahal izateko, webgunearen bidez jaitsi daitekeen promozio kupoa aurkeztu beharra dute eskaintza egiten duen establezimenduan edo bulegoan.

4.8 LIZITAZIOAK

Urtarriletik 21 lizitazioen berri eman diegu horiek eskatzeko aukera duten enpresei, honako alor hauen ingurukoak: estoreen horniketa, gimnasioarako ekipamendua, ekipo eta programa informatikoak, segurtasun sistemak, etxez etxeko laguntza emateko zerbitzua, argitalpenen banaketa, publizitatearen kudeaketa eta abar.

Jarraitu egingo dugu enpresa bazkideei eska ditzaketen lizitazioen eta/edo kontratazioen eskakizunen eta baldintzen berri ematen, bai Udalak egiten baditu, bai aurten lehen aldiz egin dugun bezala Lanbidek, Euskal Herriko Unibertsitateak, Bilbao Exhibition Centerrek eta beste entitate eta organismo batzuek egiten badituzte.

4.9 ENPRESA KIDEENTZAKO SORMEN-PROIEKTUA

Proiektua egitea ahalbidetuko duen finantzaketa lortzen baldin badugu, aurreikusten dugu 2018ko bigarren hiruhilekoan lankidetzako proiektu bat egitea Getxoko moda eta osagarrien diseinatzaileekin elkarlanean eta, hala badagokio, beste herri batzuetakoekin ere; horren bitartez, sinergiak eta markaren posizionamendua sortu nahi ditugu, baita elkarteko kide diren eta proiektuan parte hartzen duten enpresen fakturazioa areagotu ere.

Hasiera batean, proiektuak barne hartzen du tokiko zein beste udalerrri batzuetako diseinatzaileekin jartzea harremanetan eta, hala badagokio, proiektuan parte hartzen duten enpresa kideetako ordezkariekin. Horrez gain, stand bat jarriko da edo establezimenduen barruan espazio bat eratuko da diseinatzaileen proposamenak ezagutzera eman eta zabaltzeko; aztertuko da kide diren enpresei komisioak ematea egindako salmentengatik, horien jarduera ekonomikoa areagotzeko xedez. Bertaratutako bakoitzak txartel bat jasoko du bere enpresaren izenarekin, paparrean jartzeko.

5. JARDUERAK

Honako ekimen hauek aurrera eramatea planteatu dugu:

5.1 2018KO AGENDA-DIETARIOA

Azaroaren amaieran eguneko orrialde bateko formatuko 2019ko agenda-dietarioa bidaliko diegu elkarteak osatzen duten enpresei, erakundeei, organismo publikoei eta egiten ditugun jardueren eta ematen ditugun zerbitzuen enpresa babesleei eta laguntzaileei.

Agenda hartzaile bakoitzaren izenarekin pertsonalizatzen dugu, eta azalaren atzean tarteko bat sartuko dugu, publizitate guneak, 2019ko jaiegunak eta enpresentzako interesgarriak diren telefonoak bilduko dituen. Aurten, berrikuntza gisa, aipatutako koadernotxoari gehitu ahal izango zaizkio enpresa bazkideek merkaturatzen dituzten produktuen/zerbitzuen eskaintza kupoiak, horretarako interesa duten enpresenak.

5.2 II. 10+ MERKATARITZA BONUA

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzaturako programa horren bitartez, Euskadiko txikizkako saltokiek eta argazkilaritza enpresek eta ileapaindegiek kanpaina parte hartu dezakete. Kanpaina horretan, bezeroari ekimenari atxikitako enpresetan egindako erosketen % 33arekin diruz laguntzen zaio. Bonuak ekimen horri atxikitako establezimenduetan erosten dira: 20 euro balio dute, 30 euroko balioa dute erosketak egitean, eta tiket edo faktura bakarrean metatu daitezke.

Jaurlaritzak adierazi du ekimena urrian eta azaroan egingo dela.

5.3 GETXOKO 28. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Getxoko erakusleho lehiaketa Euskadiko lehiaketetatik ibilbide luzeena dutenetako bat da; bertan, herriko enpresek har dezakete parte (merkataritzakoak, ostalaritzakoak eta zerbitzuetakoak), beren establezimenduetako erakuslehoak apainduz eta girotuz. Establezimendu fisikoetan nahiz birtualetan (webguneak eta sare sozialetako profilak) egin dezakete, eta sari interesgarriak lortzeko aukera izan go dute, bai erakuslehoekin parte hartu duten enpresek, bai www.getxoenpresa.com webgunearen bitartez beren bozka eman duten bezeroek. Aurreko edizioan udalerriko 100 enpresak baino gehiagok hartu zuten parte, guztira, bi modalitateetan, eta proposamenen maila ona izan zen.

Aurten, lehiaketan izena emateko epea azaroaren bigarren hamabostaldian irekiko da berriz.

Epaimahai profesional bat egongo da, ibilbide luzea eta esperientzia duten profesionalak, erakusleho lehiaketako bi modalitateetako adituek, osatutakoa: erakusleho fisikoaren kategoriakoek (erakuslehoen eta dekorazioaren alorreko profesionalak osatua) eta kategoria birtualekoek (teknologia berrien alorreko profesionalak osatua). Horrez gain, aurreko edizioetan bezala, hainbat pertsona inplikaturiko dira: enpresa parte hartzaileen oraingo bezeroak eta bezero potentzialak. Horiek epaimahai herritar gisa hartuko dute parte, beren erakusleho fisiko eta birtual gogokoan hautatuko dituzte, eta hori egiteagatik sari interesgarriak lortzeko aukera izango dute.

Abendu erdialdean sariak banatuko dizkiegu saritutako erakuslehoak (fisikoa zein birtuala) duten enpresei, baita beren erakusleho gogokoan (fisikoak zein birtualak) epaimahai herritar gisa bozkatu izanagatik saritutako bezeroei ere.

Lehiaketaren 28. edizioan, asmoa dugu sariketaren kategoria berri bat sortzeko lehiaketan lehen aldiz parte hartzen dutenentzat, aspaldiko lehiaketa honetan udalerriko enpresa berriek parte har dezaten, eta horien irudia hobetzeko beraiek egiten duten lanari aitortza egiteko. Aurreko edizioetan bezala, hedapen kanpaina garrantzitsu bat egingo dugu, bai lehiaketa bera zabaltzeko, bai bertan parte hartzen duten enpresen berri emateko. Horrez gain, saiaturako gara enpresentzako sariak aurreko urteko edizioak baino hobeak izan daitezken.

5.4 ENPRESA BAZKIDEEN URTEROKO XIII. TOPAKETA

Maiatzaren 30ean, ostegunean, 20:30ean, harremanetarako topagune bat eskainiko dizuegu elkartearen osatzen duzuen enpresei, elkarteko ostalaritza establezimendu bazkide batean. Bertan honako ekintza hauek egingo dira, negozio aukerak sortzeko eta azaldutako enpresen ordezkarien kontaktu sarea zabaltzeko:

- Topaketara agertutako enpresen txartelak leku espezifiko batean egongo dira eskuragarri, ekitaldiaren ondoren kontaktua errazte aldera.
- Bertaratutako bakoitzak txartel bat jasoko du bere enpresaren izenarekin, paparrean jartzeko.
- Fitxak entregatuko dira, bertaratutako enpresen datu garrantzitsuenekin.
- Beharrezkotzat jotzen badute, enpresen ordezkariak 2 minutu inguruko aurkezpenak egin ahalko ditu
- Koktel formatuko afaria, bertaratutakoen arteko kontaktua eta harremana errazteko.

5.5 II. GETXO BLACK FRIDAY

Abenduaren 30ean, ostiralean (goiz eta arratsaldean), eta abenduaren 1ean (goizean), udalerriko merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako enpresek proiektuan parte hartu ahal izango dute, merkaturatzen dituzten produktuen/zerbitzuen ohiko prezioetan deskontuak eskaintzen badituzte.

Hainbat ekintza egingo ditugu enpresa parte-hartzaileak dauden guneetan, jarduera ezagutzera emateko eta horretan parte hartzen duten enpresei publizitatea egiteko helburuarekin.

Ekimenean parte hartzen duten enpresek kartel edo apaingarri bereziak jasoko dituzte, ekimeneko parte hartzaile gisa garbi identifikatu ahal izateko, eta animatu egingo ditugu ekintza sinpleak egin ditzaten bezeroak fidelizatzeko, jendea establezimendura sartzera bultzatzeko, eta, azken finean, haiek erosi edo kontsumitu dezaten.

Gainera, komunikazio eta hedapen lan zabala egin nahi dugu, batetik, jardueraren berri emateko bai udalerriko, bai gertuko herrietako herritarren artean, eta, bestetik, ekimenean parte hartuko duten enpresak ezagutzera emateko.

5.6 VII. ETA VIII. GETXOBONO

2018 urtean zehar Getxo Bono edizio bi aurrera aurteratzea aurreikusten dugu, hornela bezeroek bonoak bazkidetutako enpresetan trukatu ahal izango dituzte maiatza-ekaina, eta iraila-urria hilabeteetan zehar, hurrenez hurren.

Ekimen horien bidez, beste herri batzuetako herritarrek 3.000 bono lortu erosi ahal izango dituzte, 1.500 proiektuaren edizio bakoitzean, elkartearen webgunearen edo Kutxabanken bidez, baita finantza entitate horretako zerbitzu anitzeko kutxazainetan ere. Bonu horiek proiektuari atxiki zaizkion udalerriko enpresetan trukatu ahal izango dituzte. Enpresa horien zerrenda eskuragarri izango dute www.getxoenpresa.com webgunean eta Udalaren web orrian. Horrez gain, aipatutako enpresek elkarteak emandako bereizgarri bat izango dute.

Ekintza horrek aukera ematen du 50 euroko erosketa edo kontsumo bakoitzaren % 20 diruz laguntzeko; hau da, bonu bakoitzak 40 euroko kostua du, eta aukera ematen du ekimenari atxiki zaizkion udalerriko enpresetan 50 euroko edo haren multiplo bateko erosketak edo kontsumoak egiteko. Izan ere, antzeko beste kanpainetan ez bezala, bonuak metatu egin daitezke tiket edo faktura berean, haren balioak gainditu egiten badu bonuen zenbatekoen batura; horrez gain, antzeko proiektuetan ez bezala, bonuak edozein sektoreko enpresetan trukatu daitezke, hau da, ostalaritzakoetan eta zerbitzuetakoetan, baldin eta proiektuari atxiki bazaizkio.

5.7 GETXO MODAN DAGO

Getxo Modaren 33. edizioa dela-eta, eta urtero elkarte honek egiten duen jaialdiak dauzkan posizionamendu eta oihartzun handiak ikusita, proiektu hori egingo dugu, apirilaren 30etik maiatzaren 6ra, bertan parte hartzen duten enpresak dinamizatzeko, eta haietara jendea erakartzeko askotariko ekintzak egingo dira.

Horrela, bada, honako hauek dira atxikitako ostalaritzako enpresak: **ALGUER BAR, BISTRO TAMARISES, CAFÉ COSMOPOLITA, GLASS, LA OLA, PORTU ZAHARRA BAR, PREMIERK GETXO eta RESTAURANTE URRUTIETXE, THE PIPER'S IRISH PUB.** Establezimendu horiek proiektuari lotuko diote barran dagoeneko baduten pintxo bat edo proiekturako bereziki sortutako bat. Pintxo horiek identifikatzeko, proiektuaren irudia duten zotz batzuk izango dituzte, eta Getxoko 'moda-modako pintxo' ibilbide bat zehaztuko dugu.

Honako hauek dira atxikitako merkataritzako eta zerbitzuetako enpresak: **ACANTO DISEÑO, ARRESE GOZOTEGIA, CARNICERIA JUAN MARI, CENTRO DIETETICO TU SALUD ES NATURAL, COLORES, FARMACIA ELISA BAYANO, LA OKA, MECHAS eta PASTELERIA ZURIKALDAI NEGURI.** Bilboko Merkataritza Ganberako eta Argi Arte arte plastiko eta diseinu eskolako ikasleen laguntza izango dute, profesional adituak ikuskaritzapean, haien erakusleihoak modarekin lotutako elementuekin apaintzeko, Getxo Modaren 33. edizioko irudiari lotutako elementuak erabiliz.

Komunikazio eta hedapen lan zabala egingo, jardueraren, ekimenean parte hartuko duten enpresen, erakusleihoen eta ekimenari lotutako pintxo berri emateko.

5.8 33. GETXO MODA: GETXOKO MODA ETA ESTILISMO ASTEA

Apirilaren 30aren eta maiatzaren 4aren artean honako ekimen hauek egingo ditugu Getxoko Moda eta Estilismoaren Astea, sustatzeko eta ezagutzera emateko ekitaldian parte hartzen duten Getxoko moda, osagarri eta estilismoko enpresen 2018ko udaberriko eta udako denboraldirako eskaintza komertziala eta estilismo proposamenak:

'Getxo Moda Diseinatzaile Berriak' erakusketa: maiatzaren 2tik 4ra (10:30-20:00) Tamariseseo Serantes aretoan erakusketa bat egingo dugu horretarako deitutako lehiaketan parte hartu duten diseinatzaile berrien sorkuntzekin. Erakusketara sartzeara doakoa izango da.

'Modaren sektorearen perspektibak' izeneko mahai ingurua, maiatzaren 4an (14:00-15:30) Tamariseseo Serantes aretoan, enpresa bazkideek aukera izango dute eztabaida bat ikusteko; bertan, modaren sektoreko adituek eztabaidatuko dute sektorearen egoeraren eta perspektiben inguruan.

Desfileen jardunaldietan, maiatzaren 3an eta 4an, San Joseren jauregian (20:30etik aurrera), 'Getxo Estilismoa' eta 'Getxo Moda eta Osagarriak' pasarelak egingo dira, hurrenez hurren. Erakusleho horien bidez jende askoren aurrean aurkez daitezke 2018ko udaberri-udarako estilismo, moda eta osagarri proposamenak. Enpresa parte-hartzaile bakoitzak aholkularitza pertsonalizatua izango du desfilea antolatzen, eta gonbidapenak izango ditu. Hori izango da jendea pasareletara doan sartzeko gonbidapenak banatzeko puntu bakarra,

Honako moda eta osagarri saltoki hauek hartuko dute parte: **ADOS I2, BLONDA, II, CHARO ALVAREZ, COLORES, FREE PEOPLE, GENERAL OPTICA, JOYERIA IÑAKI, KORAT, LOLISIMA, LOS CHICOS, NATURAL OPTICS, NOVELLE, PHUKET, SNOOPY eta TOP QUEEN'S GETXO,** baita honako ileapaindegiek ere: **PELUQUERIA I.O, ITZIAR OLABARRIA, LA PELU AMAIA LAUZIRIKA eta SALON DE BELLEZA DA MONICCA.** Enpresa bazkide hauek jaialdiaren 33. edizioa babestu dute eta bertan lagundu dute: **ART NAILS, PELUQUERIA MARCEL ARRANZ, eta PALACIO SAN JOSEREN.**

Horrez gain, honako pasarelak ere egingo dira: Diseinatzaile berriak, Eder Aurre, Mikel Luzea, Alberto Sin Patrón eta Ion Fiz.

GETXO MODAren 33. edizioari amaiera emateko, sari banaketa egingo da eta aipamenak egingo dira. Maiatzaren 4an, desfileak amaitutakoan, 'Getxo Galanta' beka emango zaio Diseinatzaile Berrien Lehiaketako 15. edizioko diseinatzaile irabazleari, eta Mikel Luzea estilistari eta Alberto Sin Patrón eta Ion Fiz diseinatzaileei aintzatespena egingo zaie. Jarraian, koktel batean, hitz egiteko aukera izango dugu, lehiaketaren 33. edizioan parte hartu duten eragileak ezagutzeko eta horiekin harremanean egoteko aukeraz gozatzeko.

Bestalde, hamargarren urtez segidan, Zabalketa udalerriko garapenerako gobernuz kanpoko erakundearen lankidetzaz ezin baliotsuagoa izango dugu.

Edizio honetarako barruko zein kanpoko hedapen handiko hedabideetan horren berri ematea aurreikusi da, bai eta ekitaldiaren zein Getxoko enpresa parte-hartzaileen sare sozialetan ere.

5.9 GETXO ROCK & FUN

Herriko kaleak girotzeko eta merkataritza ordutegian salmenta eta kontsumoa sustatuko duen jolas giroa sortzeko asmoz, bertako hainbat musika talderekin elkarlanean arituko gara, Getxoko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-enpresen guneak dinamizatzeko.

Horrez gain, komunikazio kanpaina garrantzitsua egingo dugu barne hedabideetan, kanpo hedabideetan eta sare sozialetan, bertako jendea atxikitzeko eta kanpoko bisitariak erakartzeko.

Aurreikusi dugu proiektua urrian egitea, Vinilo FM hedabidearekin elkarlanean. Hedabide horrek entzule kopuru handia du Getxon, Uribe Kostan eta Bilbo Handian..

5.10 GABONETAKO DINAMIZAZIO PROIEKTUA

Aurreikusita daukagu abenduan ekimen bat aurrera eramatea, hurrei eta gazteei askotariko ekintzak dituen programa bat eskaintzeko, proiektuan parte hartzen duten establezimenduen barruan.

Urrian, bazkidetutako merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako enpresek aukera izango dute ekimen horretan parte hartzeko. Ekimenak barne hartuko ditu ipuin kontalariak, musika emanaldiak eta txotxongiloak, hurrei puxikak eta/edo txokolateak ematea eta antzeko ekintzak, baita honelako jarduerak ere: arte erakusketak; sukaldaritza lantegiak; ardo, garagardo edo gazta dastaketak, besteak beste. Horiek merkataritza ordutegian egingo dira, enpresa parte-hartzaileen barruan. Ekintzak doakoak izango dira.

Ekintzen programa jardueraren euskarri grafikoen bidez eta barne eta kanpo hedabideen bitartez hedatuko da. Aldi berean, komunikazio eta hedapen lan garrantzitsua egingo dugu jardueraren berri emateko eta ekimenean parte hartuko duten enpresak ezagutzera emateko.

5.11 II. HAZKATU ETA IRABAZI GETXO

Aurreikusi dugu proiektu hau maiatzean eta ekainean aurrera eramatea. Aukera emango du proiektuan parte hartzen duten merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako enpresak sustatzeko, eta, aldi berean, beren bezeroek establezimendu horietan erostean erakusten duten konfiantza eta fideltasuna saritzeko.

Ekintzan parte hartzen duten enpresek 'Hazkatu eta Irabazi' txartelak emango dizkiete beren bezeroei 10 euroko edo gehiagoko erosketa eta/edo kontsumo bakoitzeko, eta bezeroek opariak lortzeko aukera izango dute. Opariak diru txartelak izango dira, 'Hazkatu eta Irabazi' txartela eman duena ez beste establezimendu batean trukatu ahal izango direnak. Bigarren edizio honetan, berrikuntza gisa, ekimenean parte hartu duten enpresek beren establezimenduan trukatzeko diru txartelak eman ahal izango dituzte.

Ekimenaren eta bertan parte hartzen duten enpresen berri emango dugu euskarri grafikoan bitartez eta proiektuaren komunikazio eta hedapen kanpaina baten bitartez. Azken hori kanpo eta barne hedabideetan egingo da.

5.12 BAZKIDEEN AITORPENA

Maiatzaren 30ean, Enpresa Bazkideen Urteroko XIII. Topaketan, aitorpena egingo diogu duela hainbat urte elkartearen aldeko apustua egin zuten eta bertan sartu ziren 3 enpresa bazkideri; enpresa horiek merkataritzakoak, ostalaritzakoak eta zerbitzuetakoak izango dira.

Getxoko Erakusleihen Lehiaketaren 28. edizioko sariak eman baino lehenago, bazkideturik dauden eta aurten jubilatutako diren enpresen titularrei egingo diegu beharrezko aitorpena.

5.13 'DASTATU GETXO' PINTXO IBILBIDEAREN VIII. EDIZIOA

Ostegunetik igandera, maiatzaren 31tik ekainaren 3ra eta ekainaren 7tik 10era, proiektuan parte hartzen duten ostalaritzako enpresek pintxo bat egingo dute ekimenari lotuta. Osagai nagusia elkarreak emango du, eta jendeari eskainiko zaizkio, pintxo bakoitzeko 1,5 euroan.

Hainbat ibilbide ezarriko dira, parte hartzen duten ostalaritzako establezimenduen kokapenaren arabera, jendeari proiektuari lotutako establezimendu guztiak bisitatzea eta pintxo guztiak dastatzea errazteko.

Horrez gain, bezeroak erakartzeko eta haiek ekimenari lotutako pintxoak kontsumitu ditzaten, sariak lortu ahalko dituzte. Horretarako, bezeroek dastatutako pintxo bakoitzeko bezeroak kontsumitu duen pintxo ziztatuko diote kartillan. Bezeroen kartilletan zizkiluak pilatuko dira eta haiekin harremanetan jartzeko datuak bete ostean, ekimenean parte hartzen duen establezimendu bakoitzean kokatutako ontzietan sartuko dituzte. Sariak ausaz zozketatuko dira kartilletan zizkilurik gehien dituzten bezeroen artean; sariak elkartearen egoitzan banatuko dira.

Berrikuntza gisa, hainbat bitartekoren bidez ezagutaraziko dira proiektuari lotutako pintxo bakoitza prestatzeko errezetak, xehetasun osoz.

Gainera, enpresa parte-hartzaileen eta ezarritako pintxo ibilbideen hedapen lan handia egingo da, udalerriko zein ondoko udalerrietako herritarren artean ezagutarazteko, baita establezimendu parte-hartzaileek izango duten sustatzeko materialaren bitartez ere.

